BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

3352

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 20koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko emandako beka bati uko-egiteko eskaera onartzen duena eta ordezkoari beka ematen diona.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2011ko azaroaren 11ko Ebazpenaren bitartez (2011-11-29ko EHAA, 226. zk.), 2011. urterako Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak esleitu ziren. Txomin Ondarre Diezi (BEK-2011BA/0013), besteak beste, beka bat esleitu zitzaion.

2012ko ekainaren 20an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian bekadun horrek bekari uko egiteko eskaera sartu da, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak arautzen dituen ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuaren 15. artikulua betez, behar bezala justifikatu daitezkeen arrazoiak direla-eta, bekadunak uko egiten badio bekari, jaso ez duen diru kopurua jasotzeko eskubidea galduko du eta kobratutako eskubide ekonomikoen itzulketa proportzionala egin beharko du.

Itzuli behar den zenbatekoa kalkulatzeko, garatu gabeko beka aldia hartuko da kontuan.

Halaber, gorago aipatutako dekretuaren 10. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz, 2011ko azaroaren 11ko esleipen-ebazpenean ordezko izendatutako pertsonari esleitu behar zaio beka. Ordezkoak bekari geratzen zaion aldian baliatuko du beka, eta aldi horri dagokion diru-kopurua jasoko du.

Beraz, bidezkoa da aipatutako beka hori Maider Orta Ladislao ordezkoari esleitzea (BEK-2011BA/0064).

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2011. urterako Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak emateko deialdiaren barruan, Txomin Ondarre Díezek bekari egindako ukoa onartzea.

Horren ondorioz, uko egin duenak dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 1.755,11 euro. Halaber, hirugarren eta laugarren ordainketa egiteko akordioek indarra galdu dute.

Bigarrena.– Maider Orta Ladislao ordezkoari beka ematea. Ordezkoak bekari geratzen zaion aldian baliatuko du beka, eta aldi horri dagokion diru-kopurua jasoko du.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 20a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.